

LEHIAKETA ARAUDIA



GIPUZKOAKO TRAINERILLA LIGA 2024

1. ARTIKULUA.- ALDERDI OROKORRAK

1. Gipuzkoako Trainerilla Liga Gipuzkoako Arraunketa Federazioak antolatzen duen lehiaketa ofiziala da, eta trainerilen liga erregular baten formatua izango du.
2. Gipuzkoako Trainerilla Liga antolatzea Gipuzkoako Arraunketa Federazioari bakarrik dagokio.
3. Gipuzkoako Trainerilla Liga arautzeko araudi honetan jasotakoa erabiliko da, alde batetik, eta, bestetik, gertaera horrekin eta haren estropadekin zerikusia duten organo eskudunek onartzen dituzten akordio eta ebazpenak.
4. Gipuzkoako Arraunketa Federazioak —antolatzailea den aldetik eta Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita— ahalmena du lehiaketa hau babesten duen entitatearen "Sari Nagusia" deitzeko.
5. Era berean, Gipuzkoako Arraunketa Federazioari dagokio Gipuzkoako Trainerilla Liga osatzen duten estropada guztiak antolatzea. Estropada horiek antolatzeko nahiz gauzatzeko edozein pertsona eta entitatearen laguntza izan dezake Gipuzkoako Arraunketa Federazioak.

2. ARTIKULUA.- ESTROPADEN EGUTEGIA

1. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren ohiko Batzar Nagusiak erabakiko du Gipuzkoako Trainerilla Liga osatzen duten estropadak zenbat izango diren, eta noiz eta non jokatuko diren.
2. Behin Gipuzkoako Trainerilla Ligako egutegia onartu ondoren, jardunaldiren bat edo estropadaren bat bertan behera gera daiteke justifikaturiko arrazoiengatik. Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadak bertan behera uzteko ahalmena ondoko organoek dute:
 - a) Estropada egunean bertan —hasi aurretik edo estropada jokatu bitartean— gertatu diren zirkunstantziengatik baldin bada, GAFeko Zuzendaritza Batzordeko kideek edo haiek hautatutako pertsonak erabakiko du, Estropadako Epaimahaiak edo presidentek txostena aurkeztu ondoren.
 - b) Aurreko atalean aurreikusitakoez bestelako zirkunstantziengatik baldin bada, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epailak erabakiko du.

3. ARTIKULUA.- PARTAIDEAK

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligan parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako Arraunketa Federazioko kide diren taldeek, baina betiere federazio-betebeharrak egunean izan beharko dituzte.
2. Parte hartzen duten taldeetako arraunlari, teknikari eta ordezkariak indarrean eduki beharko dute Gipuzkoako Arraunketa Federazioak tramitaturiko eta Euskadiko Arraunketa Federazioak emandako lizentzia, euren kluba ordezkatzeko dutela frogatzen duena.
3. Klub berak, kategoria batean, ontzi bat baino gehiagoren izena eman dezake Gipuzkoako Trainerilla Ligan eta talde batek baino gehiagok osatzen duten estropada bakoitzean. Kasu horretan, ordezkatzeko duten klubaren izenaz gain, honako letra hauetako bat izango dute, hurrenez hurren: A, B, C, eta abar.
4. Nolanahi ere, Gipuzkoako Trainerilla Ligan eta hura osatzen duten estropadetan parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren kide ez diren klubek, baldin eta mugaz gaindiko hitzarmenen bat izenpetzen bada horretarako.

4. ARTIKULUA.- KATEGORIAK

1. Gipuzkoako Trainerilla Liga eta bere estropadak honako kategoria hauetan jokatuko dira:
 - Kadete neskak
 - Kadete mutilak
 - Jubenil neskak
 - Jubenil mutilak
 - Absolutu neskak
 - Absolutu mutilak.
2. Gipuzkoako Trainerilla Ligan eta bere estropada bakoitzean, kategoria bakoitzean parte hartzen duten taldeak kategoria horretako arraunlariz osatuta egongo dira. Dena dela, kategoria bereko

arraunlariek eta beheragoko kategorietako patroik batek osatu ahal izango dute talde bat, betiere pisuari dagozkion arauak betetzen badira.

3. Kirolari batek ezingo du estropada bereko bi txandatan parte hartu, kategoria berekoa izan zein ez. Izena emateko orrian ordezkio bezala agertze hutsak ez du esan nahi kirolari batek estropada edo jardunaldi batean parte hartu duenik. Patroiek ez dute izango halako mugarik.

5. ARTIKULUA - TALDE (TRAINERILLA) MISTOAK

1. Talde mistoek parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako Trainerilla Ligan. Talde mistotzat hartuko dira klub bereko eta/edo kategoria desberdineko kirolariz osaturiko taldeak, kirolarien generoa (sexua) edozein delarik ere.
2. Estropadako sailkapenean agertu arren, talde mistoek ez dute puntuaziorik izango Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapenean.
3. Kategoria batean talde mistoak har dezakete parte, kategoria bat goragoko kirolariz osatutako taldeak.
4. Talde misto batek kategoria batean parte hartzen badu, kategoria horretako gutxienez hiru (3) arraunlari eduki beharko ditu.

6. ARTIKULUA.- GIPUZKOAKO TRAINERILLA LIGAN IZENA EMATEA

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligan parte hartu nahi izanez gero, izena eman beharra dago.
2. Izen ematea ligako 1. Jardunaldiko asteko ostegunean 18:00tan itxiko da.
3. Gutxienez Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropada batean parte hartu duten taldeetako klub guztiak sailkapenean agertuko dira.

7. ARTIKULUA.- GIPUZKOAKO TRAINERILLA LIGAKO ESTROPADETAN IZENA EMATEA

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadetan parte hartzeko, antolakuntzak hartarako prestaturiko eredu ofizialean emango da izena.
2. Estropada edo jardunaldi bakoitzerako izen-ematea www.arrauna.net webgunean horretarako prestatutako plataformaren bidez bidaliko da.
3. Klub batek estropada batean trainerilla bat baino gehiago inskribatu eta denak agertzen ez badira irteerara, Gipuzkoako Trainerilla Ligako hurrengo estropadan, kategoria horretan, aurreko estropada horretan parte hartu duen talde-kopurua soilik apuntatu ahal izango du. Ezinbesteko edo ezusteko baten ondorio izan bada ez agertzea, eta behar bezala egiaztatzen bada, hurrengo estropadetan berdin-berdin parte hartu ahal izango dute. Ez dira ezinbesteko edo ezusteko arrazoitzat hartuko tripulazioa osatzeko kirolari bat edo batzuk falta izana, agertzea eragotzi dien arrazoia edozein dela ere.
4. Estropadaren egun berean egindako forfaitak edo irteera eremuan ez agertzeak, 20€ko isuna dakar, estropada hasi aurretik ordaindu beharrekoa.
5. Kirolari batek ezingo du bi klubetako ontzietan parte hartu Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadetan. Hau da, behin kirolari batek Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropada batean parte hartzen duenean (izena eman eta parte hartu), gero ezingo da liga bereko estropadetan beste klub batekin aritu. Artikulu honetan jasotakoa betetzen ez bada, kirolari-zerrenda bidegabetzat joko da.
6. Behin betiko izen ematearen egiaztapena estropadaren bezperan 19:00ak baino lehen egingo da posta elektronikoz, galdera@fgremo.com helbidean.

8. ARTIKULUA.- TXANDAK, IRTEERA-HURRENKERA ETA KALEEN ZOZKETA

1. Estropada bakoitzeko txanden banaketa eta irteera-hurrenkera antolakuntzak egingo du izena emateko epea amaitzen denean, eta parte hartuko duten taldeei (trainerillei) jakinaraziko die.
2. Txandak banatzeko edo irteera-hurrenkera zehazteko kontuan hartuko da une horretan nola dagoen Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapena, eta honela jokatuko da:
 - a) Erlojuaren kontra, banaka edo binaka jokatuko diren probetan, atzekoz aurrera irtengo dira

taldeak, Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapena aintzat harturik. Gipuzkoako Trainerilla Ligako lehen jardunaldian edo estropadan irteera-hurrenkera zozketaz erabakiko da; zozketa hori izena eman duten taldeei jakinaraziko zaien lekuan eta egunean gauzatuko da.

- b) Lineako estropadetan, eta estropada eremuak duen kale-kopuruaren arabera, azken txandan irtengo dira Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapenean lehen postuetan sailkaturik dauden taldeak, eta horrela hurrenez hurren. Gipuzkoako Trainerilla Ligako lehen jardunaldian edo estropadan irteera-hurrenkera zozketaz erabakiko da; zozketa hori Federazioaren instalazioetan egingo da.
3. Talde mistoak edo estropada jokatzeko unean Gipuzkoako Trainerilla Ligan izena emanda ez duten taldeak kategoriatzeko lehen txandetan irtengo dira; erloju-kontrako estropadetan ere lehenak irtengo dira.
4. Kaleen banaketa Federazioan egingo da, binakako lineako estropadetan zein erloju-kontrako binakako estropadetan. Antolakuntzaren edo hark izendatzen duen pertsonaren ardura izango da zozketa nola egingo den erabakitzea.
5. Gipuzkoako Trainerilla Ligako azken estropada Gipuzkoako Trainerilla Txapelketako sailkapen-estropada ere baldin bada, txanden banaketa eta kaleen zozketa probintziako txapelketako araudian ezarritakoa jarraikiz egingo da.
6. Lineako estropadetako kategoriatzeko izena eman duten taldeak aintzat hartuta, antolatzaileek honakoak bermatzen saiatuko dira, kategoriatzeko txandak ahalik eta modu arrazoizkoenean banatzearen:
 - a) Kategoriatzeko txandetan gutxienez hiru (3) taldek parte hartzea.
 - b) Txanda bakoitzean klub desberdinetako taldeek parte hartzea, betiere artikuluko honetako 2. atalean ezarritakoa errespetatuz.

9.- ARTIKULUA.- ESTROPADA BAKOITZAREN AURREKO BILERA

1. Ez da delegatu bilerarik egingo. Dena Whatsappez bidaliko da.

10. ARTIKULUA.- ORDEZKARIAK

1. Klub bakoitzaren ordezkariaren ardura da Estropadako Epaimahaiak emandako agindu eta jarraibideak bere taldeko kideei jakinaraztea, estropada bakoitzaren aurretik edo jardunaldian zehar.
2. Klubaren ordezkaria izango da klubaren eta bertako kide guztien ordezkari bakarra Estropadako Epaimahaiaren aurrean estropada jokatzeko den egunean. Taldearen izenean eta haren ordezkari egin behar diren tramite guztiak egin beharko ditu izena emateko orrian ordezkari izendatzen denak.
3. Klubaren ordezkariak soilik egon ahal dira haien prestaturako den lekuan, Estropadako Epaimahaiaren ondoan.

11. ARTIKULUA.- IZENA EMATEKO ORRIAK EMATEA ESTROPADA BAKOITZERAKO

1. Talde bakoitzaren inskripzio-orria formatu digitalean aurkeztuko da, www.arrauna.net plataformaren bidez.
2. Izena emateko orrian honako hauek agertu beharko dira: taldearen ordezkaria, entrenatzailea eta taldea (trainerilla) osatzen duten kirolariak —lemazaina eta arraunlariak— (titularrak eta ordezkariak). Izena emateko orrian agertzen diren pertsona guztiek indarrean eduki beharko dute federazio-lizentzia.
3. Arraunlariak aldatu ahal izango dira, baina betiere kirolaria ordezkari artean agertzen bada trainerilla horren izena emateko orrian. Gehienez lau (4) aldaketa egin ahal izango dira —hiru (3) arraunlari eta patroia—. Aldaketen berri lehenbailehen eman behar zaio Estropadako Epaimahaiari, betiere parte hartuko den txanda hasi baino lehen.

12. ARTIKULUA.- GIPUZKOAKO TRAINERILLA LIGAREN SAILKAPENA

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligaren sailkapena egiteko puntuazio-sistema bat erabiliko da; horretarako, lehiaketa osatzen duten estropada guztietan taldeek eskuratutako sailkapenak (postuak) hartuko dira kontuan.

2. Estropada eta kategoria bakoitzeko puntuazio bat emango zaio talde bakoitzari. Kategoria bakoitzean irabazten duen taldeari ligan izena eman duten taldeen kopurua bezainbeste puntu emango zaizkio. Haren atzetik sailkatutako taldeei puntuak modu erregresiboan emango zaizkie; hau da, estropadako sailkapenean aurretik geratu denak eskuratutako puntuazioa ken bat, eta horrela azken sailkatura arte. Azken horrek puntu bat (1) eskuratuko du (kanporaketak edo deskalifikazioak egon ezean).
3. Klub batek kategoria berean hainbat talderen izena eman badu eta sailkatu badira (A, B... trainerillak), eta hurrengo estropadetan talde gutxiagoren izena eman eta sailkatu badira, azken estropada horretan A, B eta abar taldeek puntuazioa modu korrelatiboan eskuratuko dute. Demagun kategoria bateko 1. estropadan klub bereko 3 talde sailkatzen direla (A, B eta C), eta kategoria bereko 2. estropadan klub bereko 2 talde sailkatzen direla. Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapena egitean, puntuazioa honela emango litzateke: azken estropada horretan puntuak A eta B taldeei emango zaizkie, estropada bakoitzean talde horiek osatzen zituzten kirolariak edozein izanda ere.
4. Aurreko atalean ezarritakoa ez da aplikagarria izango klub batek talde baten izena eman eta talde hori kanporatua edo deskalifikatua izan bada, edota estropada utzi badu. Kasu horretan, Gipuzkoako Trainerilla Ligaren sailkapena egiteko puntuazioa kaleratua edo deskalifikatua izan ez den taldeari emango zaio.
5. Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropada bakoitzean zein Ligaren amaieran puntu gehien eskuratu dituen taldea izango da Ligako 1. sailkatua edo txapelduna. Berdinketarik egonez gero, irizpide hauek erabiliko dira hurrenez hurren:
 - a) Lehen irizpidea, garaipen edo lehen postu gehien estropadetan:

Berdinduta dauden taldeen kopurua edozein dela ere, berdinduta dauden taldeen artean Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadetan garaipen (lehen postu) kopururik handiena duena sailkatuko da aurretik.
 - b) Bigarren irizpidea, garaipen gehien lortu duena elkarren aurka jokaturiko estropadetan:

Bi talde edo gehiago badaude berdinduta eta haietako inork estropadarik irabazi ez badu edo garaipen (lehen postu) kopuru bera lortu badute, elkarren arteko neurketak hartuko dira aintzat; hala, Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadetan sailkapen hobe maizago eskuratu duen taldea izango da irabazlea.
 - c) Hirugarren irizpidea, azken estropadan hobeto sailkatzen dena:

Aurreko irizpideak aplikatu eta oraindik ere berdinduta badaude, Gipuzkoako Trainerilla Ligako azken estropadako emaitza hartuko da kontuan, eta bertan aurretik sailkatu den taldearen alde erabakiko da berdinketa.
 - d) Laugarren irizpidea, berdindutakoen artean zozketa:

Irizpide hori erabili behar bada berdinketa hausteko, zozketa egingo da, baldin eta berdinduta dauden trainerillak exequo (denbora berean) helmugaratzen badira azken estropadan.
6. Bi trainerilla edo gehiago exequo helmugaratzen badira, puntu-kopuru bera emango zaie Gipuzkoako Trainerilla Ligarako. Berdinduta dauden taldeei posturik onenari dagokion puntu-kopurua emango zaie, eta denbora berean bukatu ez duten gainerako taldeen puntuazioak bere horretan utziko dira.
7. Talde bat estropada batetik kanporatu edo deskalifikatuz gero, dela Estropadako Epaimahaiaren erabakiz, dela GAFen Lehiaketako Epaille Bakarraren erabakiz, zero (0) puntu emango zaizkio.
8. Talde batek estropada utzi edo bukatu ezean, honako hau egingo da:
 - a) Justifikaturiko arrazoiengatik edo besteri egotz lekizkiokeen arrazoiengatik estropada bat amaitzen ez bada:

Denboraldian zehar jokatu diren estropadetan talde kaltetuak batez beste lortu duen puntu-kopurua emango zaio. Gertakaria talde horrek parte hartzen duen lehen estropadan gertatzen bada, kategoria horretan parte hartzen duten taldeen puntuazioaren batezbestekoa emango zaio. Parte hartzen duten talde-kopurua bakoitia bada, gorantz zuzenduko da (puntu bat gehiago emango zaio).

Lehiaketako Epaille bakarrak erabakiko du idazpuru honetan jasotako egoera den, eta berak baloratuko du. Oro har, justifikaturiko arrazoiengatik edo besteri egotz lekizkiokeen arrazoiengatik estropada bat amaitu gabe utzi dela ulertuko da trainerilla bati bere txanda amaitzea oztopatzen bazaio, kasu hauetakoren bat dela medio:

- Antolakuntzari egotz dakizkiokeen gertakariak estropada-eremuan.
- Hirugarrenek gauzaturiko ekintzak, kirol-arau orokorren aurkakoak direnak (hirugarrenek partaideak izan zein ez eta taldeak ordezkatzeko duen klubekoak izan zein ez).

Ez dira idazpuru honetan sartuko estropadak amaitu gabe uzteak, baldin eta hurrengo atalean jasotzen diren egoerengatik gertatzen badira:

b) Justifikaturiko arrazoi batengatik estropada uztea, baina besteri egozgarria ez dena:

Ez zaio batere punturik emango.

Lehiaketako Epaille bakarrak erabakiko du idazpuru honetan jasotako egoera den, eta berak baloratuko du. Oro har, justifikaturiko arrazoi batengatik estropada utzi dela baina besteri egozgarria ez dela ulertuko da honako egoera hau: talde batek estropada ez amaitzea materialarekin zerikusia duen arrazoiengatik (ontzia, arraunak eta abar), tripulazioagatik (arraunlariak, patroia eta abar) edo naturagatik (klimatologia, itsasoaren egoera eta abar).

9. Ligaren amaieran, azken sailkapena egitean, talde bakoitzak estropada guztien puntuazioa batuko du, batena salbu: puntuazio okerrera eskuratu duten estropada. Adibidez, liga batean 12 estropada jokatzeko badira, talde bakoitzak 11 estropadetako puntuak batuko ditu (puntuazio onenak eskuratu dituen estropadetakoak, alegia).

13.- ARTIKULUA.- ESTROPADEN KONTROL TEKNIKOA: ESTROPADAKO EPAIMAHAIA

1. Estropadako Epaimahaiaren eginkizuna izango da estropada bakoitza zuzentzea, ikuskatzea eta teknikoki kontrolatzea; epaimahai horretan Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Epaille Eskolako kideak egongo dira.
2. Taldeek, ordezkariaren bidez, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Estropadako Epaimahaiaren aurrean, Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodearen arabera.
3. Estropadako Epaimahaia osatzen duten epaille-arbitroen erabakiak egokitzat jotzen dira, eta Estropadako Epaimahaiak jaso eta izenpeturiko aktak beharrezko dokumentuak dira lehiaketa behar bezala gauzatzeko. Dena dela, konpon litezkeen hutsegite arbitralek —arau teknikoaren interpretazio eta aplikazio hutsera mugatzen ez direnak— estropaden emaitzak aldatzea ekar lezakete, eta, beraz, baita Gipuzkoako Trainerilla Ligako sailkapena aldatzea ere.

14. ARTIKULUA.- ESTROPADA-KODEA

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligako estropadak gainbegiratzeari eta teknikoki kontrolatzeari dagokionez, Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodeak ezartzen duena erabiliko da.
2. Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodea erabiliko da Gipuzkoako Trainerilla Ligan, betiere araudi honetan bestelakorik edo aurkakorik esaten ez den gaitan.

15. ARTIKULUA.- ESTROPADAKO EPAIMAHAIAREN ERABAKIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Estropadako Epaimahaiaren erabakien aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren aurrean. Horretarako bi laneguneko epea egongo da, aurkaratu nahi den erabakia hartu zen estropada jokatu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Inpugnazioak epe horretan aurkeztu beharko dira, idatziz, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren egoitzan; gertakariak eta zergatiak azaldu beharko dira, frogak ere bai, eta bereziki aipatu beharko da zer eskatzen den.

Erreklamazioarekin batera 250 euroko fidantza eman beharko da; inpugnazioak aurrera eginez gero, erreklamazioa egin duen pertsonari kopuru hori itzuliko zaio.

16. ARTIKULUA.- LEHIAKETAKO EPAILE BAKARRA

1. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarrak eskumena du jakiteko Gipuzkoako Trainerilla Ligan gertatzen diren eta diziplinakoak ez diren lehiaketako gai oro, betiere haiek ebaztea beste organo baten esku utzi ez bada.

2. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarrari araudi honek ematen dizkion ahalmenei eta eskumenei kalterik eragin gabe, entitate horren diziplina-organoaren ardura izango da Gipuzkoako Trainerilla Ligan eta estropadetan gertatzen diren kirol-diziplinarekin loturiko arau-urratzeak epaitzea eta egileei euren erantzukizuna betearaztea.
3. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren egitekoa da araudi honen edukiaren gainean sor litezkeen auziak ezagutzea eta ebaztea, bai interpretatzeari dagokionez bai araudi honetan jasotzen ez den auziren bat sortzen bada. Kasu horietan, gertaerak edo zirkunstantziak ikusirik, kirol-lehiaketetan erabili ohi diren printzipioak eta irizpide orokorrak aintzat harturik ebatziko da auzia.
4. Gipuzkoako Arraunketa Federazioko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du Lehiaketako Epaille bakarra, eta Batzar Nagusiak onetsiko du.
5. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren erabakiak edo ebazpenak interesatuei jakinaraziko zaizkie. Nolanahi ere, indarrean dagoen legeriaren arabera pertsonen ohore- eta intimitate-eskubideak errespetatuz, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarrak Gipuzkoako Trainerilla Ligaren inguruan hartutako erabakiak edo ebazpenak argitaratu ahal izango dira.
6. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren ebazpenak berehala sartuko dira indarrean, non eta kautelazko etendurarik ez dagoen. Hau da, arau orokor gisa eta arrazoituriko etendurarik ez badago, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren ebazpen baten aurka erreklamazio edo errekurtsio bat jartzeagatik ez da geldituko, indargabetuko edo bertan behera geratuko erabakitakoa.
7. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarraren ebazpenek amaitutzat ematen dute federazio-bidea, eta haien aurkako errekurtsioa aurkez daiteke Kirol Justiziako Euskal Batzordean.

17. ARTIKULUA.- DOPINAREN AURKAKOA

1. Gipuzkoako Trainerilla Ligan dopina saiesteko, kontrolatzeko eta erazteko araudi hauek erabiliko dira:

Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren dopinaren aurkako araudian Euskal Arraunketa Federazioak ezarritakoa izango da aplikagarria, eta euskal federazioak izango ditu Gipuzkoako Arraunketa Federazioko txapelketa ofizialeetan dopina saiesteko, kontrolatzeko eta zigortzeko funtzioak.

18. ARTIKULUA.- PARTAIDETZA-KANONA

Antolakuntzak, Zuzendaritza Batzordeak hala erabakita, onartu ahal izango du kanon bat kobratzea Gipuzkoako Trainerilla Ligan parte hartzen duten eta antolakuntzan parte hartzen ez duten klubei. Estropaden antolakuntzan laguntzearen ordainetan, kanon-kontzeptuan jasotzen diren kopuruak proportzionalki banatuko dira antolakuntzan laguntzen duten entitateen artean, Gipuzkoako Trainerilla Ligan eta hura osatzen dute estropadetan partaide izan zein ez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- KLAUSULA INDARGABETZAILE OROKORRA

Gipuzkoako Trainerilla Ligan erabiliko den araudi honek, indarrean sartzen den egunetik aurrera, indarrrik gabe uzten ditu txapelketa horretan orain arte erabili diren xedapen, ohitura eta akordio guztiak.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA.-HIZKUNTZA

Gipuzkoako Trainerilla Ligan erabiliko den araudi hau euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten da. Hizkuntza batean eta bestean adierazitakoaren artean desadostasunik sortuko balitz, euskarazkoa nagusituko da.

REGLAMENTO DE COMPETICIÓN



LIGA GUIPUZCOANA DE TRAINERILLAS 2024

ARTÍCULO 1.- ASPECTOS GENERALES.

1. La Liga Guipuzcoana de Trainerillas es una competición federada oficial de la Federación Guipuzcoana de Remo disputada bajo el formato de liga regular de regatas de Trainerillas.
2. La organización de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas corresponde, en exclusiva, a la Federación Guipuzcoana de Remo.
3. La Liga Guipuzcoana de Trainerillas se regirá por lo previsto en el presente reglamento o normativa de competición y por los acuerdos y resoluciones que sean adoptadas por los órganos competentes para cada aspecto o asunto relacionado con el evento en cuestión y las regatas que lo conforman.
4. La Federación Guipuzcoana de Remo - como organizador - queda facultada, por acuerdo de su Junta Directiva, para denominar a la competición "*Gran Premio*" de la entidad que ostentase la condición de patrocinador del evento.
5. Corresponde, de igual forma, a la Federación Guipuzcoana de Remo la organización de todas las regatas que conforman la Liga Guipuzcoana de Trainerillas. Para la organización y desarrollo de tales regatas, la Federación Guipuzcoana de Remo podrá contar con la colaboración de cualesquiera personas o entidades.

ARTÍCULO 2.- CALENDARIO DE REGATAS.

1. El número de regatas, las fechas de celebración de cada jornada y el lugar o lugares donde se deban celebrar las regatas que, inicialmente, conforman la Liga Guipuzcoana de Trainerillas será aprobado en sesión ordinaria de la Asamblea General de la Federación Guipuzcoana de Remo.
2. Una vez aprobado el calendario de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, y por causas justificadas, se podrán suspender jornadas o regatas que, inicialmente, formaran parte de la competición. La suspensión de las regatas incluidas en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas compete a los siguientes órganos:
 - a) Si fuera debida a circunstancias o hechos que sobrevengan el mismo día en el que una regata deba celebrarse -bien antes del inicio, bien durante la regata- será acordada por los miembros de la Junta Directiva de la F.G.R. presentes en la regata o persona en quien delegue, previo informe del Jurado de Regata o de su Presidente.
 - b) Si fuera debida a circunstancias o hechos diferentes a los supuestos previstos en el apartado anterior será acordada por el Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo.

ARTÍCULO 3.- PARTICIPANTES.

1. Podrán participar en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas equipos (trainerillas) representantes de clubes adscritos a la Federación Guipuzcoana de Remo y que se encuentren al día en el cumplimiento de sus obligaciones federativas.
2. Los equipos (trainerillas) participantes deberán estar formados por deportistas, técnicos y delegados que estén en posesión de la licencia federativa en vigor tramitada por la Federación Guipuzcoana de Remo y expedida por la Federación Vasca de Remo y a favor del club al que representen.
3. Un mismo club, en una misma categoría, podrá inscribir en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y en cada una de las regatas que la conforman más de un equipo (trainerilla). En tales casos, se denominarán obligatoriamente con el nombre del club al que representen y, correlativamente, con las letras: A, B, C, etcétera.
4. No obstante lo previsto en los apartados precedentes de este artículo, podrán tomar parte tanto en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas como en las regatas que la conforman equipos (trainerillas) representantes de clubes no adscritos a la Federación Guipuzcoana de Remo en razón a eventuales convenios de colaboración transfronteriza que pudieran suscribirse.

ARTÍCULO 4.- CATEGORÍAS.

1. La Liga Guipuzcoana de Trainerillas, así como cada una de las regatas que la conforman, se disputarán en las siguientes categorías:

- Cadete femenino
 - Cadete masculino
 - Juvenil femenino.
 - Juvenil Masculino.
 - Absoluto Femenino.
 - Absoluto Masculino.
2. Los equipos (trainerillas) participantes, en cada categoría, en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, y cada una de las regatas que la conforman, deberán estar integrados por deportistas de dicha categoría. No obstante ello, un equipo (trainerilla) podrá estar integrado por remeros de dicha categoría y por un patrón que podrá pertenecer a las categorías inferiores siempre que se cumplan las previsiones reglamentarias en lo que al peso se refiere.
 3. Un mismo deportista no podrá tomar parte, en una misma regata, en más de una tanda y ello con independencia de que pertenezca a la misma u otra categoría. A tal efecto, no se entenderá que un deportista toma parte en una regata o jornada cuando simplemente aparezca como suplente o reserva en la hoja de inscripción en una regata. Dicha limitación no será extensiva a los patrones.

ARTÍCULO 5.- EQUIPOS (TRAINERILLAS) MIXTOS.

1. En las regatas que conforman la Liga Guipuzcoana de Trainerillas podrán tomar parte equipos (trainerillas) mixtos. A tal efecto, se entenderá por equipos (trainerillas) mixtos aquellos conformados por deportistas de un mismo club, de género (sexo) indistinto y / o de diferente categoría.
2. Los equipos (trainerillas) mixtos, pese a figurar en la clasificación de la regata, no obtendrán puntuación alguna en la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas.
3. Dentro de una categoría, podrá tomar parte en una regata un equipo (trainerilla) mixto formado por deportistas de la categoría inmediatamente superior.
4. Un equipo (trainerilla) que, siendo mixto, tome parte en una regata deberá estar formado por, al menos, tres (3) remeros de la categoría en la que participase.

ARTÍCULO 6.- INSCRIPCIONES EN LA LIGA GUIPUZCOANA DE TRAINERILLAS.

1. Será necesario formalizar la inscripción para tomar parte en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas.
2. La inscripción se realizará antes de las 18:00 horas del jueves anterior a la 1ª jornada de la liga.
3. Todo club cuyos equipos (trainerillas) hubieran tomado parte en, al menos, una regata de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas figurará en la clasificación del evento.

ARTÍCULO 7.- INSCRIPCIONES EN LAS REGATAS DE LA LIGA GUIPUZCOANA DE TRAINERILLAS.

1. La inscripción de equipos (trainerillas) para tomar parte en cada regata que conforma la Liga Guipuzcoana de Trainerillas deberá formalizarse por los clubes en el modelo oficial establecido al efecto por la entidad organizadora.
2. La inscripción de equipos (trainerillas) para cada una de las jornadas de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas se hará a través de la web www.arrauna.net.
3. Un club que inscribiera un número de equipos (trainerillas) y no comparecieran todos ellos en la línea de salida de una regata, en la siguiente regata de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y para dicha categoría, solo podrá inscribir el número de equipos (trainerillas) que hubieran tomado parte en la regata en la que no se presentase su equipo o equipos (trainerillas). Dicha previsión no resultará de aplicación a aquellos supuestos en los que un equipo (trainerilla) o un club no hubiera comparecido en la línea de salida por causa mayor o caso fortuito debidamente acreditado no imputable a dicha entidad. No se entenderá incluido en tales supuestos de causa mayor o caso fortuito la simple falta de asistencia de uno o varios de sus deportistas para completar la tripulación, y ello con independencia de las causas que la originasen.
4. El forfait el mismo día de la regata o no asistencia a línea de salida, acarreará una sanción de

20€ por embarcación que se deberá abonar antes del inicio de la competición.

5. En las regatas que integran la Liga Guipuzcoana de Trainerillas un mismo deportista no podrá formar parte de equipos (trainerillas) que representen a distintos clubes. Esto es, una vez que un deportista haya tomado parte (inscrito y participado) en una regata de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas no podrá tomar parte en las siguientes regatas de dicha competición formando parte de equipos (trainerillas) que representen a otros clubes. La inobservancia de lo señalado en la presente estipulación tendrá la consideración de alineación indebida.
6. La confirmación de inscripción definitiva se hará la víspera a la disputa de la regata antes de las 19.00 horas por correo electrónico en la dirección galdera@fgremo.com

ARTÍCULO 8.- CONFECCIÓN DE TANDAS, ORDEN DE SALIDA V SORTEO DE CALLES.

1. La confección de tandas y el orden de salida de cada regata se efectuará por la entidad organizadora tras el cierre de inscripción y será comunicado a los clubes cuyos equipos (trainerillas) tomaran parte en la jornada.
2. Para la confección de tandas o fijación del orden de salida en cada regata se tendrá en consideración la clasificación al momento de celebrarse la jornada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, procediéndose como sigue:
 - a) En las regatas disputadas en formato de contra-reloj, individual o por parejas, el orden de salida será inverso a la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas. En el caso de la primera jornada o regata de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas el orden de salida será establecido mediante sorteo que será celebrado en lugar y fecha que será comunicada a los clubes cuyos equipos (trainerillas) se hubiesen inscrito.
 - b) En las regatas disputadas en línea, y teniendo presente el número de calles del campo de regatas, tomarán parte en la última tanda, los equipos (trainerillas) que ocupen una mejor clasificación en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, y así sucesivamente. En el caso de la primera jornada o regata de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas la confección de tandas será establecida mediante sorteo que será celebrado en los locales de la Federación Gipuzkoana de Remo.
3. Los equipos (trainerillas) mixtos o aquellos que, al momento de disputarse una jornada, no estuvieren inscritos en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas serán encuadrados en la(s) primera(s) tanda(s) que deba(n) celebrarse para dicha categoría o, en el caso de las regatas contra-reloj, tomarán en primer lugar la salida.
4. La asignación de calles, en el caso de las regatas en línea o de contra-reloj por parejas, será realizado mediante sorteo efectuado en los locales de la federación. Es competencia de la entidad organizadora o persona en quien delegase establecer la forma en la que el sorteo de asignación de calles debe realizarse.
5. Si la última jornada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas tuviera, a su vez, la condición de "regata clasificatoria" del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, la confección de tandas y el sorteo de calles será realizado de conformidad con lo previsto en la normativa o reglamento regulador del campeonato provincial.
6. Teniendo presentes los equipos (trainerillas) inscritos en cada categoría en las regatas en línea, la entidad organizadora -al objeto de realizar una distribución más racional de las tandas de cada categoría- tratará de garantizar:
 - a) Que las tandas que deban disputarse en cada categoría tengan un número mínimo de tres (3) equipos (trainerillas) participantes.
 - b) La participación, en cada tanda, de equipos (trainerillas) representantes de diferentes clubes, respetando lo establecido en el apartado 2º de este artículo.

ARTÍCULO 9.- REUNIÓN PREVIA A CADA REGATA.

1. No habrá reunión de delegados. Las notificaciones se realizarán vía Whatsapp.

ARTÍCULO 10.- DELEGADOS.

1. El delegado de cada club es el único encargado - y por tanto, responsable - de comunicar a los miembros del mismo cuantas órdenes e instrucciones fueran dadas por el Jurado de la Regata y sus integrantes con ocasión de la reunión previa a cada regata o durante la propia jornada.
2. El delegado de cada club es el único representante de este y sus miembros ante el Jurado de la Regata durante la jornada de la regata. Todos los actos o trámites que deban realizarse en nombre y representación de dicho equipo (trainerilla) participante durante una jornada serán realizados por quien figure como su delegado en la hoja de inscripción.
3. Solamente los delegados de cada club podrán ubicarse en el lugar habilitado para tal colectivo junto al área donde se encuentre el Jurado de la Regata.

ARTÍCULO 11.- ENTREGA DE LAS HOJAS DE INSCRIPCIÓN PARA CADA REGATA.

1. La inscripción para cada equipo (trainerilla) deberá ser cumplimentada a través de www.arrauna.net.
2. En la hoja de inscripción deberán figurar: el delegado, el técnico y los deportistas -patrón y remeros- (titulares y suplentes) que conforman el equipo (trainerilla). Todas cuantas personas figuren en la hoja de inscripción deberán estar en posesión de licencia federativa en vigor.
3. Se podrán introducir cambios en un equipo (trainerilla) siempre que el deportista figurase como suplente o reserva en la hoja de inscripción de esa trainerilla. Se podrá realizar un máximo de cuatro (4) cambios -3 (tres) de remeros y el patrón-. Los cambios efectuados deberán ser comunicados al Jurado de la Regata por el delegado o miembros de un equipo (trainerilla) tan pronto sean conocidos y, en cualquier caso, antes del inicio de la tanda en la que se tomase parte.

ARTÍCULO 12.- CLASIFICACIÓN DE LA LIGA GUIPUZCOANA DE TRAINERILLAS.

1. La clasificación general de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas para cada categoría se confeccionará mediante un sistema de puntuación, tomando como referencia las clasificaciones (puestos) obtenidos por los equipos (trainerillas) en todas y cada una de las regatas que integran la competición.
2. En cada regata, y para categoría, se concederá una puntuación a cada equipo (trainerilla) participante. Dicha puntuación, en el caso del equipo (trainerilla) ganador de cada categoría, será coincidente con el número de equipos (trainerillas) inscritos en la liga. La puntuación concedida a los siguientes equipos (trainerillas) será regresiva, esto es, se otorgará un punto menos que al precedente en la clasificación de la regata, hasta el último clasificado que, salvo exclusiones o descalificaciones de participantes, se le concederá un (1) punto.
3. A efectos de confeccionar la clasificación general de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, un club que en una misma categoría hubiese inscrito y clasificado en una regata varios equipos (trainerillas A, B, etcétera), y que en posteriores regatas inscribiese y clasificase un menor número de equipos (trainerillas), obtendrá en ésta última la puntuación correlativamente para sus equipos (trainerillas) A, B, etcétera. Esto es, por ejemplo, si en la 1ª regata en una categoría se clasifican 3 equipos (trainerillas) -A, B y C- de un mismo club y en la 2ª regata en la misma categoría se clasifican 2 equipos (trainerillas) del mismo club, para la confección de la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas se concederá, en esta última regata, la puntuación a los equipos (trainerillas) A y B, con independencia de la composición de éstos en cada una de las regatas.
4. Lo previsto en el apartado precedente, no será de aplicación en caso de que, una vez inscrito por un club un equipo (trainerilla), éste hubiese sido excluido, descalificado o, simplemente, hubiera abandonado la regata. En tal supuesto, la puntuación para la confección de la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas será concedida al equipo (trainerilla) que hubiera finalizado sin ser excluido o descalificado.
5. Para la confección de la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas - bien tras cada regata, bien al concluir la citada competición - resultará 1 clasificado o vencedor el equipo (trainerilla) del club que más puntos hubiera obtenido. En caso de empate a puntos se procederá de conformidad con los siguientes criterios que serán aplicados correlativamente:
 - a) Primer criterio, mayor número de victorias (primeros puestos) en las regatas:
Sea cual fuere el número de equipos (trainerillas) empatados, ocupará una mejor posición - de entre los equipos (trainerillas) empatados - aquel que hubiera obtenido un

- mayor número de victorias (primeros puestos) en las regatas de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas disputadas.
- b) Segundo criterio, mayor número de victorias en los enfrentamientos directos en regatas:
Si el empate se produce entre dos o más equipos (trainerillas) y ninguno de ellos hubiera obtenido victorias en regatas (primeros puestos) o hubieran obtenido un mismo número de victorias (primeros puestos) en regatas, se tomarán como referencia los enfrentamientos entre los mismos, de forma que ocupará una mejor posición aquel que hubiera finalizado mejor clasificado en un mayor número de ocasiones en regatas de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas.
- c) Tercer criterio, mejor clasificación en la última regata:
Si tras aplicar los criterios antedichos persiste el empate se tomará como referencia el resultado de la última regata celebrada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, ocupando una mejor posición aquel equipo (trainerilla) que haya obtenido mejor clasificación en la última regata disputada.
- d) Cuarto criterio, sorteo entre los empatados:
Si, siendo preciso acudir al criterio que antecede para resolver un empate, se procederá mediante sorteo si se hubiere producido una llegada exequo en la última regata entre los equipos (trainerillas) empatados.
6. En caso de que dos o más equipos (trainerillas) participantes en una regata finalizasen exequo (en el mismo tiempo), a efectos de la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, se les concederá una misma puntuación. El número de puntos que les será concedido será el del mejor puesto de entre los empatados, respetándose los puestos y puntuaciones de los demás equipos (trainerillas) que no hubieran finalizado exequo.
7. En los supuestos en los que un equipo (trainerilla) sea excluido o descalificado de una regata por decisión del Jurado de la Regata o por Resolución del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remose obtendrá 0 (cero) puntos como puntuación.
8. En los supuestos de abandono o no conclusión de un equipo (trainerilla) en una regata se procederá como sigue:
- a) Si el abandono en una regata estuviese relacionado con causas justificadas imputables a terceros ajenos al equipo (trainerilla) que no concluyera la regata:
Se le concederá -a efectos de confeccionar la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas- una puntuación que será equivalente a la media de puntos obtenidos por ese equipo (trainerilla) en las regatas ya disputadas. Si la incidencia se produjera en la primera regata en la que tomara parte dicho equipo (trainerilla), se adjudicará la media de puntuación según los equipos participantes en dicha categoría que, de ser número impar, será corregida por exceso.
La apreciación y valoración de las causas incluidas en este apartado corresponderá, en primera instancia, al Jurado de la Regata. Se entenderá, únicamente, que concurre un supuesto de no conclusión de una regata por causa justificada e imputable a terceros ajenos al equipo (trainerilla) en cuestión cuando se le impida objetivamente la finalización de su tanda por mediar:
- Incidencias en el campo de regatas imputables a la organización.
 - Acciones cometidas por terceros, sean o no participantes, ajenos al club al que pertenezca el equipo (trainerilla) y que sean contrarias a las normas deportivas generales.
- No se entenderán incluidas en este epígrafe los abandonos o la no conclusión de una regata descritos en el siguiente apartado.
- b) Supuesto de abandono de una regata por causa justificada pero no imputables a terceros: Se concederá 0 (cero) puntos.
La apreciación y valoración de las causas incluidas en este epígrafe corresponderá, en primera instancia, al Jurado de la Regata. Se entenderá que concurre un supuesto de abandono de una regata por causa justificada pero no imputables a terceros cuando la no finalización de una tanda por un equipo (trainerilla) tuviera relación con los elementos materiales (embarcación, remos, etcétera), personales (remeros, patrón, etcétera) o con la naturaleza (climatología, estado del mar, etcétera).
9. Al final de la liga, a la hora de confeccionar la clasificación final, cada equipo sumará las puntuaciones de todas las regatas menos una: aquella en la que hubiera conseguido peor

ARTÍCULO 13.- CONTROL TÉCNICO DE LAS REGATAS: JURADO DE LA REGATA.

puntuación. Por ejemplo, si en una liga se disputaran 12 regatas, cada equipo sumaría los puntos obtenidos en 11 regatas.

1. La dirección, supervisión y control técnico de cada regata corresponde al Jurado de la Regata que estará integrado por personal adscrito al Colegio de Jueces-Árbitros de la Federación Guipuzcoana de Remo.
2. Los equipos (Trainerillas), a través de su delegado, podrán presentar reclamaciones ante el Jurado de la Regata de conformidad con lo previsto en el Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo.
3. Las decisiones de los jueces-árbitros que integran el Jurado de la Regata en el ejercicio de sus funciones durante las regatas se presumen correctas y las actas de las regatas suscritas y rubricadas por el Jurado de la Regata constituyen medio documental necesario para el desarrollo de la competición. No obstante ello, la existencia de errores arbitrales susceptibles de rectificación -y que no consistan en la mera interpretación y aplicación de normas técnicas podrán conllevar la alteración de los resultados de las regatas y, por tanto, de la clasificación de la Liga Guipuzcoana

ARTÍCULO 14.- CÓDIGO DE REGATAS.

de Trainerillas.

1. En lo relativo al control técnico y supervisión de cada regata que conforma la Liga Guipuzcoana de Trainerillasse estará a lo previsto en el Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo.
2. El Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo resultará de aplicación en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas en todos cuantos aspectos no contradigan o versen sobre materias expresamente previstas en el presente Reglamento de Competición.

ARTÍCULO 15.- RECURSOS FRENTE A LAS DECISIONES DEL JURADO DE REGATAS.

Las decisiones del Jurado de la Regata serán recurribles ante el Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo en el plazo de dos días hábiles a contar desde el siguiente al de la celebración de la regata donde se hubiera producido la decisión o resolución que se desea impugnar. Las impugnaciones deberán ser presentadas en el plazo señalado por escrito en la sede de la Federación Guipuzcoana de Remo, debiendo figurar los hechos y fundamentos, siendo acompañadas de los medios de prueba de los que se valiesen, y con mención expresa a cuanto fuera instado o solicitado por el recurrente.

La presentación de la reclamación irá acompañada de una fianza de 250 € que serán devueltos al reclamante caso de prosperar la impugnación.

ARTÍCULO 16.- JUEZ ÚNICO DE COMPETICIÓN.

1. El Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo es competente para conocer cuantas cuestiones de índole competicional no disciplinaria se planteasen con ocasión de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y cuya resolución no estuviera encomendada a otros órganos.
2. Sin perjuicio de las facultades y competencias conferidas al Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo por este reglamento, compete al órgano disciplinario de dicha entidad el enjuiciamiento disciplinario-deportivo de cuantas acciones u omisiones se produjeran con ocasión de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y sus regatas y de las que pudiera derivar responsabilidad disciplinaria para sus autores.
3. Corresponde al Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo el conocimiento y resolución de conflictos que sobre el contenido de la presente normativa pudieran generarse, bien sobre su interpretación, bien como consecuencia de la inexistencia de una disposición que contemple un supuesto de hecho planteado. Tales casos o supuestos, a la vista de los hechos planteados y circunstancias concurrentes, se resolverán teniendo presentes principios o criterios generales por los que se rigen las competiciones deportivas.
4. El Juez único de Competición será designado por la Junta Directiva de la Federación Guipuzcoana de Remo y ratificado por la Asamblea General de dicha entidad.
5. Las decisiones o resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana serán comunicadas a quienes tuvieran la condición de interesados en relación con las mismas. No obstante ello, respetando el derecho al honor e intimidad de las personas conforme a la legislación vigente, las decisiones o resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana

de Remo con ocasión de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas podrán hacerse públicas.

6. Las resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo, salvo que cautelarmente sean suspendidas, serán inmediatamente ejecutivas. Esto es, como norma general y salvo suspensión razonada, la mera interposición de una reclamación o recurso contra una resolución del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo no paralizará, dejará sin efecto o suspenderá lo acordado.
7. Las resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo, que agotan la vía federativa, podrán ser recurridas ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

ARTÍCULO 17.- ANTIDOPAJE.

1. La prevención, control y erradicación del dopaje en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas se regirá por las siguientes disposiciones normativas:
 - a) Por la Orden de 11 de enero de 1996, por la que se establecen las normas generales para la realización de controles de dopaje y las condiciones generales para la homologación y funcionamiento de laboratorios, no estatales, de control de dopaje en el deporte, y disposiciones normativas que la misma desarrollen, complementen o deroguen.
 - b) Por la Resolución de 21 de diciembre de 2005, de la Presidencia del Consejo Superior de Deportes, por la que se aprueba la lista de sustancias y métodos prohibidos en el deporte, y disposiciones normativas que la misma desarrollen, complementen o deroguen.
2. El Comité Antidopaje de la Federación Guipuzcoana de Remo será el encargado de la Ilevanza y resolución de aquellas cuestiones que se suscitaren en el área antidopaje con ocasión de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas.

ARTÍCULO 18.- CANON DE PARTICIPACIÓN.

La entidad organizadora, por acuerdo de su Junta Directiva, podrá aprobar el obligatorio abono de un canon de participación que será exigido a los clubes cuyos equipos (trainerillas) tomasen parte en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y no colaborasen en la organización de regatas. Al objeto de compensar la colaboración en la organización de regatas, las cantidades satisfechas a modo de canon serán distribuidas proporcionalmente a las entidades colaboradoras, independientemente de si toman o no parte en la Liga Guipuzcoana de Trainerillas y las regatas que la conforman.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA.- CLÁUSULA DEROGATORIA GENERAL.

El presente reglamento o normativa de competición por el que se rige la Liga Guipuzcoana de Trainerillas deroga cuantas otras disposiciones, usos y costumbres, o simples acuerdos hubieran regulado o resultado de aplicación en el citado evento hasta la fecha de su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.- IDIOMA.

El presente reglamento o normativa de competición por el que se rige la Liga Guipuzcoana de Trainerillas se presenta en castellano y euskera. En caso de divergencia entre lo señalado en una y otra lengua, prevalecerá lo previsto en euskera.